



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza
Deialdia: Lehenengoa
Bilera mota: Ohikoa
Eguna: 2021.10.26
Ordua: 19:00tan
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Inor ere ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

**Imanol Lukanbio Larretxea eta Beñat Mitxelena Danboriena hasieran falta dira.*

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2021/09/13ko akta aho batez onartzen da.

2. “DESKONEKTATU ELEKTRIKETATIK” MOZIOAREN ADIERAZPENAREN ONESPENA.

Idazkariak eta alkateak EH Bilduk aurkezturiko “Deskonektatu elektriketatik” mozioaren nondik norakoak azaltzen dituzte.

Horri dagokionez, Udala jakitun da argindarraren prezio maximo historikoek enpresa elektrikoak aberasten dituela herritarrak pobretzen diren bitartean. Horregatik, beharrezkoa ikusten dute instituzioek gaiaren inguruko adierazpenak egitea egoera salatu eta irtenbide bat aurkitzeko bide egokian jarraitzeko.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- EH Bilduk aurkezturiko "Deskonektatu elektriketatik" moziora batzea.
- 2.- Atxikipen honen berri, dagokion mozioarekin batera, EH Bilduri jakinaraztea.

3. AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNAREN MOZIOAREN ADIERAZPENEN ONESPENA.

Idazkariak eta alkateak azaroak 25, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dela eta, EH Bilduk aurkezturiko adierazpen instituzionalaren berri ematen dute.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Mozioan azaldutako ondorengo adierazpenak egitea:

1. *Arantzako Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistaren aurreko erantzun-protokoloa bere egiten du.*
2. *Arantzako Udal honek ez du murrizketarik egingo 2022ko berdintasun-aurrekontuetan, eta gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du.*
3. *Arantzako Udal honek larrialdietako alerta-mekanismoak indartuko ditu, larrialdietan erantzuna bizkortzeko eta bermatzeko.*
4. *Arantzako Udal honek Nafarroako Berdintasunerako Institutuari eskatzen dio emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.*
5. *Arantzako Udal honek jai giroan eman litezkeen erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa berritzeko/sortzeko, eta hau Mugimendu Feministarekin eta Jai Batzordearekin batera egiteko konpromisoa hartzen du.*
6. *Arantzako Udal honek herritarrentzako, eta bereziki emakumeentzako, dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzeko bideak erraztuko ditu.*
7. *Arantzako Udal honek indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak, doakoak eta ez diskriminatzaileak direla bermatuko du / bermatzeko dei egiten du.*
8. *Arantzako Udal honek, neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jabeakuntza jarduerak abian jarriko ditu, hainbat gai jorratu ahal izateko, besteak beste, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, amodio erromantikoak, sexualitate libreak,*

etab., 10 urtetik gorako neskei eta nerabeei zuzendutako autodefentsa feministako tailer iraunkorrak ere jasoz.

9. *Arantzako Udal honek, herri/lurraldeko mutil eta gizonei zuzendutako lanketa berezituak abiatzeko konpromisoa hartzen du, afektibitatea, harreman ereduak, maskulinitate ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta parekidetasuna lantzeko besteren artean; eta horretarako programa zehatzak aktibatze konpromisoa ere hartzen du.*
10. *Erakunde honetatik, hau da, Arantzako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitze bide eta tresna nagusia den heinean.*

2.- Atxikipen honen berri, dagokion mozioarekin batera, EH Bilduri jakinaraztea.

****Imanol Lukanbio Larretxea eta Beñat Mitxelena Danboriena sartzen dira.***

4. BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA OSTALARITZAREKIN LOTUTAKO BERTZE ELEMENTU BATZUK JARTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak Arantzako bide publikoan terrazak eta ostalaritzarekin lotutako bertze elementu batzuk jartzea arautzen duen Ordenantzaren nondik norakoak azaltzen ditu.

Horri dagokionez osoko bilkurak gaiaz eztabaidatzen du.

Alde batetik, data zehatz batzuetan jartzen diren interes orokorreko tabernen gaia aipatzen dute (barra-mostradoreak, txosnak, etab.), izan ere, horrelako instalakuntzak Arantzako Gazte Asanbladak edo Guraso Elkarteak egiten dituzte eta hauek ez dute jarduera eta irekitze lizentziarik izaten. Horregatik, beharrezkoa ikusten dute horrelako instalakuntzak Ordenantza honen barnean sartzea, dagozkien salbuespenak aipatuta.

Bertze aldetik, terraza eta espaloia arteko gutxieneko distantzia kendu beharko zela diote, izan ere, Arantzako hiriguneko ezaugarriak ikusirik, ezinen litzateke gutxieneko distantzia bat bermatu.

Azkenik, terrazen epe edo funtzionamendu aldiaren inguruan eztabaidatzen dute. Horri dagokionez, fatxadari erantsitako instalazioak urte guziko baimengarriak izan daitezten ongi ikusten dute, ez ordea gainerako instalakuntzak (bidearen bertze aldean ezartzen direnak edo egokitutako lekuetan jartzen diren), horiek epe zehatz batean paratzeko baimengarriak izatea daitezten aipatzen dute.

Aurrekoagatik guztiagatik, idazkariak azaltzen du, honako Ordenantza hau onartzeko Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozedimendua jarraitu beharko litzatekela.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Bide publikoan terrazak eta ostalaritzarekin lotutako bertze elementu batzuk jartzea arautzen duen Ordenantzari hasierako onespina ematea.

2.- Hasierako onespenaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako udaletxeko iragarki oholean argitaratzea, hogeita hamar eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izan ditzaten.

3.- Adierazitako epean erreklamazio, eragozpen edo oharrik aurkezten ez badira, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea Ordenantza.

5. MENDIKO PISTEN ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPINA.

Idazkariak Arantzako mendiko pisten eta bideen erabilera arautzen den Ordenantzaren nondik norakoak azaltzen ditu.

Horri dagokionez, osoko bilkurak beharrezkoa ikusten du mendiko pisten eta bideen erabilera arautzea. Bereziki oihan-aprobetxamenduen ondorioz pista eta bideetan sortutako kalteen inguruan solasten dute, izan ere hauek moldatzearen kudeaketa eta kostuarekin laguntzeko baliagarri ikusten dute Ordenantza hau.

Aurrekoagatik guztiagatik, idazkariak azaltzen du, honako Ordenantza hau onartzeko Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozedimendua jarraitu beharko litzatekela.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Mendiko pisten eta bideen erabilera arautzen duen Ordenantzari hasierako onespina ematea.

2.- Hasierako onespenaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako udaletxeko iragarki oholean argitaratzea, hogeita hamar eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal izan ditzaten.

3.- Adierazitako epean erreklamazio, eragozpen edo oharrik aurkezten ez badira, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea Ordenantza.

6. 2022. EKITALDIKO KARGA TASEN ONESPENA.

Idazkariak 2022. ekitaldiko karga tasen eguneratzea egin beharra dela azaltzen du.

Osoko bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.–2022ko ekitaldirako karga-tasa hauek onestea:

- Lurralde kontribuzioa: %0,22.
- Ekonomia-jardueren gaineko zerga: udalaren indizea 1,30.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezarritakoa.
- Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga: %4.
- Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga:
 - Zerga-oinarria: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak.
 - Karga-tasa: %8.

2.–Erabaki honek 2022ko urtarrilaren 1ean indarra hartzea, eta indarrean jarraitzea aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

3.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

7. HERRI-LURREN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaltzen du herri-lurren ordenantzaren aldaketa egin beharko litzatekela, izan ere, bertan aipatzen diren zenbait puntu ez datoz bat errealtatean egiten denarekin edo nahasketara eramán ditzakete.

Bereziki 52.3. artikulua aldatu beharko zela dio. Horrela bada, “3. Arantzako Udaleko bide publikoaren erabileraren baitan, baso ustiapenetan, kamioiak eta makinaria handia erabiltzen direnean, Arantzako Udalak tasa bat kobratu ahal izanen du ibilgailu hauek bide publikoa erabiltzeagatik. Tasa hau ordenantza honetan edo urtero eguneratzen ahal diren tasetan zehaztuko da.” erraten duen lekuan “3. Arantzako Udaleko bide publikoaren erabileraren baitan, partikular zein enpresa partikularrak egindako herri-lurren baso ustiapenetan, kamioiak eta makinaria handia erabiltzen direnean, Arantzako Udalak tasa bat kobratu ahal izanen du ibilgailu hauek bide publikoa erabiltzeagatik. Tasa hau ordenantza honetan edo urtero eguneratzen ahal diren tasetan zehaztuko da.” erratea proposatzen du.

Halaber, tarifetan, NBP(PAC) dirulaguntzen inguruan, e) puntua indargabetzea proposatzen du idazkariak “e) NPB (PAC)eko dirulaguntzan deklaratzeko zeditzen den lurra: Orokorrean: 3 euro/ha. Gizarte segurutzan, nekazaritza arloan jarduten duten norberaren konturako langileentzako sistema berezian altan daudenak: 0 euro.” izan ere, orain arte ez zen inoiz kobratua tasa hori eta, gainera, badirudi ez zela Udalaren asmoa tasa hori kobratzea.

Aurrekoagatik guztiagatik, idazkariak azaltzen du, honako Ordenantza hau aldatzeko Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozedimendua jarraitu beharko litzatekela.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- 52.3. artikulua idatzi aldatzea, honako hau izanik idatzi berria:

“3. Arantzako Udaleko bide publikoaren erabileraren baitan, partikular zein enpresa partikularrak egindako herri-lurren baso ustiapenetan, kamioiak eta makinaria handia erabiltzen direnean, Arantzako Udalak tasa bat kobratu ahal izanen du ibilgailu hauek bide publikoa erabiltzeagatik. Tasa hau ordenantza honetan edo urtero eguneratzen ahal diren tasetan zehaztuko da.”

2.- Tarifetan azaldutako, NPB(PAC) dirulaguntzen inguruan, e) puntua indargabetzea.

3.- Aldaketaren hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako udaletxeko iragarki oholean argitaratzea, hogeita hamar eguneko epean herritar eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharra egin ahal izan ditzaten.

4.- Adierazitako epean erreklamazio, eragozpen edo oharrik aurkezten ez badira, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, behin betiko onestea Ordenantzaren aldaketa.

8. ALKATEAREN EBAZPENAK

95/2021-119/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

9. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:30ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA, IDAZKARIA,



Dabid Iturria Almandoz Nagore Madariaga Iriarte